

ZESTOAKO ONDASUN HIGIEZIN HIRITARREN LURZORUAREN **ETA ERAIKINEN BALIO PONENTZIAREN ALDAKETA**

SARRERA

2001eko abuztuaren 28an udalerriko Balio Ponentzia onartu zuen Diputatu Kontseiluak. Ponentzian oinarrituta, ondasun higiezin hiritarren balio katastralak lortu ziren, eta 2002ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean. Balio katastral berriak 2002ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean.

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak 12. artikuluan jasotzen duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak aldatuko ditu balio katastralak, ofizioz edo Udalak eskatuta, beti ere hirigintza antolamenduak edo beste edozein zirkunstantziak agerian uzten badu diferentzia nabarmenak daudela, alde batetik, balio katastral horien eta, bestetik, udalerrian nahiz bertako zonaren batean edo batzuetan kokatzen diren ondasun higiezin merkatuko balioen artean.

Balio ponentzia onartu denez geroztik, aldaketak izan dira udalerriko hirigintza antolaketan; gainera, lurzoruaren izaerari eta, beraz, aldaketa horiekin lotutako ondasunen merkatuko balioari eragin diete aldaketa horiek.

Horregatik guztiagatik, Zestoako lurzoruaren eta ondasun higiezin hiritarren lurzoruaren eta eraikinen balio ponentzia aldatu da.

XEDEA

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak, Ondasun Higiezin gaineko Zergari buruzkoak, 12. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalerriko balio ponentzia aldatu da zirkunstantzia hauek direla medio:

1.- Aldaketak udalerriko hirigintza antolaketan:

- Zestoako Hiri Antolaketako Arauen Aldaketa, Ondorengo Areak Hartzen dituena: D.5-Urola Trenbidearen Plataforma/Estazioko Parkearen Area; D.6-Miserikordia Area; AZ.R.1-Aizarnako Area, Arroa- Beheko AB.R.1 Alberdi Area; Arroa-Beheko AB.I.3-Rezola Area; Iraetako IR.R2-Area; Arroa-Beheko AB.I.2-Azkue Area; Txiribogako TX.I.1-Area; D.4-San Joan Bataiatzaile Ermitaren Area; Iraetako IR.S.I.2 Nagusikoa Alorraren Aldameneko Lur Eremu Hiritarrezina; Arroa-Beheko AB.S.I.4-Sansinenea-Erreka Alorraren Aldameneko Lur Eremu Hiritarrezina; eta Lur Eremu Hiritarrezineko Ordenantzak (2003ko uztailaren 16an Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak behin-betiko onartua).

ALDAKETAK

Aipatu zirkunstantzien ondorioz, honela aldatuko da Balio Ponentzia:

1.- Hirilur lurraren mugak aldatzen dira, eta 852 eta 860 industri erabileko zona katastral berriak sortzen dira.

2.- Sortutako zonek honako balioak izango dituzte:

Zona	Hirigintz. Klasif	(BEI)Balio Erag	(MP)Apark Moduloa
852	HIRITARGAIA	180,30 €	6.010,12 €
860	HIRITARGAIA	180,30 €	6.010,12 €

I. ERANSKINA

Hirilurraren mugatze planoa.

II. ERANSKINA

Zona katastralen planoa.